

/ Nabarmenezkoak

- >Arte eszenikoak haurrei eta gazteei hurbiltzeko eskola-programa (3. or.)
- >Las Negras del 45-ren kontzertua (3. or.)
- >Aixerrota Institutuko ikasle batzuk STARTInnova saria jaso dute (3. or.)



Romoko, Areetako eta Andra Mariko inauteriak (4. or.)

Opera. Matxoak 6, ostirala, 19:00etan, Muxikebarrin (Ereaga aretoan), Don Giovanni (Mozart), Compañía Lírica ópera 2001 elkartearekin. Sarrera: 40€.

Kontzertua. Matxoak 7, larunbata, 21:00etan, Muxikebarrin (Arrigunaga aretoan), Balcan Paradise Orchestra. Sarrera: 12€.

A-
GENDA

ALGORTAKO INAUTERIAK: OTSAILAK 28 eta 29 eta MARTXOAK 1

EGITARAUA Antolatzailea: Jai Batzordea

Eguna: ostirala, otsailak 28

San Nikolas plazan, **17:00etan:** Umeentzako tailerrak. **18:30ean:** Umeentzako txokolatada eta Euskal Inauterietako kalejira Agurra Dantza Taldearekin. **19:30ean:** Giro berezia Amezti zonaldean. **22:00etan:** DJ El conde Zap Kasinoko plazan.

Eguna: larunbata, otsailak 29

12:00etan: Andres Isasi Musikalia Martxing Band Algortan zehar. **13:00etan:** Inauterietako Txupinazoa + Koadrilen desfilea. Kasinoko plazan (ibilbidea errepidetik San Nikolas plazaraino Areatxu fanfarrearekin), Batukada Kasinoko plazan eta vermouh dastaketa Ameztin. **12:45ean:** Photocalla Musika Eskolako plazan. **14:30ean:** Familientzako mozerro bazkaria J.B.Zabala eskoletan, eta koadrilentzat San Nikolas plazan; **18:00etan:** poteo musikatua San Nikolas plazatik. **19:00etan:** Umeen mozerro txapelketako sari banaketa eta Zumba Kasinoko plazan. **20:00etan:** Urrats Erromeria. **21:00etan:** Ou mamaren kontzertua Kasinoko plazan eta Gau berezia Ameztin. **22:00etan:** Koadrilen mozerro txapelketako sari banaketa + DJ Bull San Nikolas plazan. **23:00etan:** DJ El conde Zap Kasinoko plazan.

Eguna: igandea, martxoak 1

11:30ean: Umeentzako puzgarriak San Nikolas plazan. **12:30ean:** Erraldoi eta buruhandiak Agurra taldearekin Algortan zehar. **13:00etan:** vermouh dastaketa Ameztin. **13:30ean:** Txistorrada San Nikolas plazan.

INAUTERIETAKO DESFILEA

Antolatzailea: Asociación Cultural Pro Bolivia

Eguna: larunbata, martxoak 7

17:00etan: Boliviako inauteriak. Kalejira Bizkaia Zubitik Getxoko Kirol Porturaino. Boliviako, Peruko, Ekuadorko ... 25 kuadrillen parte-hartzearekin.

Ismael Serrano Getxora iritsi da "Todavía" akustikoarekin

Ismael Serrano kantautore madrildarrak kontzertua eskainiko du larunbat honetan, otsailak 29, 20:00etan, Muxikebarriko Ereaga aretoan. Getxora dator bere azken lana aurkeztera, *Todavía*, akustikoan (gitarra eta ahotsa) egindako bira, oso ikuskizun intimoa eta eszenografia zaindua duena. Sarreraren prezioa 20 eurokoa da.

Zuzenean grabatuta eta artistaren lagun talde txiki baten presentziarekin, Ismael Serranok bere betiko kantuen bertsoak eta inoiz argitaratu gabeko kantu bat biltzen ditu disko honetan.

20 urteko ibilbidea ospatu zuen *Hoy es siempre* biraren arrakastaren ondoren, zeinetan hainbatetan jarri zuen zintzilik "Ez dago sarrerarik" kartela, abeslari madrildarrak proiektu berri honi ekin zion, eta bertan bere gitarraren intimitatea lehenesten du bere kantu enblematikoenetako batzuen bertso berriak egiteko. *Todavía* lanarekin, Ismael Serranok zirkulua ixten du eta aurreko albumaren eta instrumentazio handia zuenaren



bertsio guztiz ezberdinak eskaintzen ditu. Ismaelek iaz Tigren (Argentina) eskaini zuen errezitaldi akustiko baten emaitza da *Todavía*, gitarra eta ahotsez egina. Bere 12 abesti pertsonaleneta-

koen berrargitalpena eta argitaragabeko abesti bat, *Crucé un Océano*, batzen ditu.

Interpreteak dioenez, "Hoy es siempre editatu ondoren, banda eta eszenaratze

handiarekin egindako kontzertua, sustrietara itzuli behar nuen. Inoiz ez nuen aukerarik izan gitarra eta ahots errezitaldi bat grabatzeko, ofizioaren muina, kantuak defendatzeko modurik zintzoena, zailena".



OTSAILAK 27 OSTEGUNA

GetxoLive! Monos taldearen kontzertua (indie), 20:00etan, Azkorriko Fingaloka Style-n. Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako Emakumeen Elkarte Sozio-kulturala. Hitzaldia, Inauteri jai eta bazkideen urtebetetzeak. 18:00etan, Romoko San José parrokiako lokaletan.

OTSAILAK 28 OSTIRALA

Algortako inauteriak. Informazio gehiago: 1. orrialdean.

Haur antzerkia. Muxikebarrin (Arrigunaga aretoa), 18:00etan, "Mari eta gaileta fabrika", Eidaberen eskutik. Sarrera: 8€.

Zine-kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Lo que arde" filmaren proiektzioa. Zuzendaria: Oliver Laxe. 7 urtetik aurrera. Sarrera: 3,50€.

Laburmetraia. "Palabras de Caramelo", 19:00etan, Romo Kultur Etxean (ez Algortan, akats batengatik aurreko alean argitaratu genuen bezala). Doako sarrera. ATFAlek eta Udalak antolatuta.

OTSAILAK 29 LARUNBATA

Algortako inauteriak. Informazio gehiago: 1. orrialdean.

Kontzertua. Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 20:00etan, Ismael Serrano: "Todavía". Sarrera: 20€.

Kontzertua. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:00etan, Las negras del 45-ren emanaldia. Sarrera: 5€ (3€ Musika Eskolako ikasleentzat).

Kafe tertuliak. 18:00etan Jabe-kuntza Eskolan (Martikoena 16). Gonbidatua: Yuderkys Espinosa Miñoso. Izena emateko: <http://bit.ly/CafésConversatorios2020> Whatsapp: 655 60 38 09. Antolatzailea: Mujeres con Voz.

MARTXOAK 1 IGANDEA

Algortako inauteriak. Informazio gehiago: 1. orrialdean.

Haur Zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Lur eta amets" (euskaraz). Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Txiki tailerrak: Ikasi ateratzen igeltsuarekin animalien oinatzak (6-14 urte). www.ingurumenaretoagetoa.eus

MARTXOAK 4 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. 17:30ean, Romo Kultur Etxean parte hartzeko solasaldia, 60 urtetik gorako pertsonen udal liburutegietako artxiboaren argazkiei buruz dakiten guztia azal dezaten.

Liburuaren aurkezpena. 19:00etan Algortako Kultur Etxean, Begoña Ripaldak eta Belén Lucasek "Libé-lulas al vuelo" aurkeztuko dute.

MARTXOAK 5 OSTEGUNA

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean, Elena Gamarraren "Ilusiones" (tapizak eta mandalak) eta Azucena Fernándezen "Begiradak" (pintura). Hilaren 31ra arte.

GetxoLive! X Lignum taldearen kontzertua (rock), 20:00etan, Algortako Piper's Irish Pub-en. Sarrera dohainik.

Zinemabarrri (Zine-Kluba). Muxikebarrin (Areeta aretoa), 20:00etan, Haritz Zubillagaren "Las horas muertas" laburmetraia eta Galder Gaztelu-Urrutiaren "El hoyo" luzemetraia. Foruma Aranzazu Callejarekin (zine musikagilea). Sarrera: 3,50€.

MARTXOAK 6 OSTIRALA

Erakusketa. Torrene Areetan, Alex Martinen "Mundos paralelos" (pinturak). Hilaren 29ra arte.

Haur tailerra. 17:00etan Romoko eta 18:30ean Villamonteko liburutegietan, "Neska-mutilak berdina dira. Chicos y chicas cuentan igual". Euskaraz eta gaztelaniaz. 3 urtetik aurrera (pertsona heldu batekin). Leku-kopurua mugatua. Izena emateko: www.getxo.eus/apuntazaitez Antolatzailea: Matiz elkartea, "Zurekin buru-belarri, kontu kontari: bizikidetzarako liburutegiak".

Opera. Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 19:00etan, "Don Giovanni" (Mozart), Compañía Lírica ópera 2001 taldearekin. Sarrera: 40€.

Zine-kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "La mujer de la montaña" filma. Zuzendaria: Benedikt Erlingsson. Hizkuntza: islandiera. Adin guztia. 3,50€.

Organo kontzertua. Algortako San Nikolas Bariko parrokian, 20:00etan, Santiago Quemadaren errezitaldia. Sarrera dohainik.

Kontzertu didaktikoa. 11:00etan (ikastetxeak) eta 18:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, metal-tresnen kontzertu didaktikoa.

Hitzaldia. 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "El montaje de una ópera: ¿qué se oculta tras el telón?". Hizlaria: Aitxiber Aretxederra (ABAO). Sarrera gonbidapenarekin (Musika Eskolan jaso behar dira).

MARTXOAK 7 LARUNBATA

Inauteriak. Informazio gehiago: 1. orrialdean.

Kontzertua. Muxikebarrin (Arrigunaga aretoa (harmailarik gabe), 21:00etan, Balcan Paradise Orchestra. Sarrera: 12€.

Ingurumen aretoa. 10:30-14:00. Ginkana autogidatua Bolueko Hezegunetik. www.ingurumenaretoagetoa.eus

MARTXOAK 8 IGANDEA

Zinematikiki-Haur zinea. Muxikebarrin (Areeta aretoa) 12:00etan. "Zog, dragones y heroínas". Adin guztientzat. 2,50€.

Haur Zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Frozen, el reino del hielo". Adin guztientzat. 2,50€.

Ingurumen aretoa. 10:30-13:30. Txiki tailerrak: Apaindu itzazu herriak! (3-14 urte). www.ingurumenaretoagetoa.eus

narekin, oso ondo egokituta, merkataritzakoa ez den eremuan. 550 hilean. Tel.: 656 788 240.

- **Berreskuratu** zure argazkiak, bideoak eta familiaren pelikulak. Pasatu DVD formatora. Tel.: 630 26 58 750.

- **Bizikleta estatikoa salgai,** Reebok markakoa. 200€ Tel.: 688 61 85 04.



- **Bulegoa alokatzen da** Romon, 75 m2-koa, biltegiarekin eta komu-

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia eragaztasunaren erantzule izango

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurilaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Martxoaren 2tik 13ra

Arratoiak hiltzeko urteko lehendabiziko kanpaina trinkoa, udalerrri osoan

Martxoaren 2tik 13ra egingo da Udaleko Ingurumen Arloak arratoiak hiltzeko udalerrri osoan urtero egiten dituen hiru kanpaina intentsiboetako lehena. Aurrez aurreko tratamendua da, trinkoa, orokorra eta aldi berekoa, eta honako egun hauetan eta udalerriko honako toki hauetan egingo da: **hilaren 2an**, Areeta aldean; **hilaren 3an**, Romo-Zugazarte aldean; **hilaren 4an**, Neguriko goiko aldean (metroko trenbidetik Ereaga hondartzaraino); **hilaren 5ean**, Neguriko beheko aldean (metroko trenbidetik Gobela ibairaino); **hilaren 6an**, Arrigunaga eta inguruan; **hilaren 9an**, Algortako goiko aldean; **hilaren 10ean**, Bidezabal-Ollarretxe gunean; **hilaren 11n**, Algortako beheko aldean; eta **hilaren 12an eta**



13an, Andra Mari auzoan.

2019. urtean, 751kg biozida erabili ziren arratoiei aurre egiteko eta karraskari horiekin lotutako 208 abisu jaso ziren, guztira, Ingurumen Arloan; 2018an, berriz, 261 hartu ziren, hau da, %20 gutxiago.

Animalia horiek hobeto kontrolatzeko eta tratamendua guztiz eraginkorra izan dadin, Udalak herritarren laguntza eskatzen du. Horretarako, honako jarraitze hauei jarraitzea eskatzen du: ez elikatu kaleko animaliak (katuak, hegaztiak ...), ez utzi janari arrastorik bide publikoan, erabili paperontziak eta bota zaborrak 20:00etatik 22:00etara.

Halaber, tratamendu horiek bide publikoetako saneamentu- eta argiztapen-kutxatilen gainean egiten direnez gero, jabe-erkidego pribatuei gomendatzen zaie beren lorategietako eta barruko edo komunitateko patioetako arratoiak hiltzeko mantentze-zerbitzuak kontratatuta edukitzea, tratamendu horiek ere eraginkorragoak izan daitezten.

462 ekarpen "Getxo Txukun Villamonte"-n

462 ekarpen aurkeztu ziren *Getxo Txukun*. Auzoz Auzo, kalez kale prozesu parte-hartzailean, joan den abenduan Villamonte inguruan amaitu zena. Iradokizunak jaso zituzten hobekuntzak egiteko Makaletako etorbidea, Iturribarri, Areneondo, Arene, Villamonte, Bolue eta Salsidu kaleek mugatzen duten espazioan.

221 lagunek parte hartu zuten. Horietatik 69 prozesutik kanpo geratu ziren: 8 identifikatuta ez egoteagatik eta 61 hobekuntzak egin behar ziren eremuan helbideratuta ez egoteagatik. Kanalei dagokienez, 75 lagunek horretarako prestatutako postontzietan utzi zituzten galdetegiak, 50ek karpetan, 16k online eta 11k hautestontziak erabili zituzten. Guztira 462 ekarpen lortu ziren (378 baliozkotuak). 91 emakume hartu zuten parte eta 61 gizonen eta 45 urtetik gorako pertsonak dira gehien parte hartu zutenak. Gaiei dagokienez, 322k azpiegiturekin, obra eta zerbitzuekin eta ingurumenarekin dute zerikusia; 33k herritarren segurtasunarekin; 11k Kultur Etxearekin; 5ek gobernu irekiarekin eta modernizazioarekin; 4k gizarte-koehisioarekin eta 3k Ekonomia-Sustapenarekin. Horiek aztertu ondoren, dokumentu bat bidaliko zaie bizilagunei proposamenei erantzunez eta aurrera eraman ahal izango diren jardueren berri emanez.



Getxo Hiria Patinaje Artistikoko Nazioarteko Txapelketa

Fadurako kiroldegia 7. Getxo Hiria Patinaje Artistikoko Nazioarteko Txapelketa hartuko du ostiral honetatik, otsailak 28, igandera, marxoak 1. Lehiaketa Getxo Show Patinaje Klubak antolatzen du Getxo Kirolak-ekin elkarlanean, eta, bertan, modalitate horretako 250 kirolari baino gehiagok hartuko dute parte. Getxon izango dira Estatu osoko eta Italiako klubetako ordezkariak. Sarrera doakoa da. Programazioa: klubaren Facebook-ean (@clubpatinajeshowgetxo).

GLLak eskatzeko epea zabalik

Aste honetan zabaldu da Gizarte Larrialdietarako laguntzak eskatzeko epea, tokiko gobernu batzarrak 2020an banaketa arautuko duten irizpideak onartu berri ondoren. Eusko Jaurilaritzaren eskuduntza dira diru-laguntza horiek, eta aurten Getxo udalerrirako 687.705€ zuzenduko ditu eta, urtero bezala, udalak gainontzeko dirua ipiniko du. Udal Gizarte Zerbitzuek laguntzak bideratu, gestionatu eta ordaintzeko ardura dute. Aurten GLLak eskatzeko epea datorren azaroaren 12ra arte egongo da irekita.

GLLak ohiko bizilekua edo etxebizitza erabiltzeko eta mantentzeko gastuak ordaintzeko zuzentzen dira, honako hauek barne: alokairua, kredituaren amortizazioa eta interesak, etxe-asegurua, EIT-Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa, etxearen konponketa eta egokitzapena, eta energia, ura, zaborra eta estolderia, OHZ, galdarak mantentzea, oinarriko ekipamendua, oinarriko beharrezkoak (elikadura, janzeria, heziketa eta Osakidetzak estali gabeko osasun-arreta) eta zorpetzea.

Eskatzailuek aurreko urteotan jasotako GLLen justifikazioak egunean eduki beharko dituzte. Emandako laguntzak justifikatu beharko dira gastuak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuz. Gastuen justifikazioak aurkezteko epea 2021ko urtarrilaren 21ean amaituko da.

BERRILABURRAK

***Zurumurrurik Ez topaketa.** Marxoaren 21ean, urteko Zurumurrurik Ez topaketa izango da RKen, Udalak sustatutako Estrategiaren barruan. 10:30etik 14:30era bitartean, elkarteko eta hausnartzeko gunea izango da, Asier Gallastegi hezitzaileak dinamizatuta, herritarren sarea indartzeko. Izenematea: 662 425 662 / anturumores@getxo.eus

***Aretxondoren jarduerak.** Algortako Aretxondo elkar-teak pintxo-solasaldi bat antolatu du ostiral honetarako, otsailak 28rako, 19:30ean, eta gaia *Seis claves para educar la responsabilidad* izango da. Gainera, elkar-teak gogoratzen du astearte goizetan, jostura tailerreko klaseak mantentzen direla. Informazio gehiago: 946567419 eta 699923023.

Ostiral honetan, otsailak 28, hasiko da programa, proiektu pilotua dena, “Mari eta gailera fabrika” antzezlanarekin

Arte eszenikoak haurrei eta gazteei hurbiltzeko eskola-programa

Kultur Etxeak eskola-programa bat jarri du abian aste honetan bertan arte eszenikoak haur eta gazteen artean sustatzeko; hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasle getxotarra zuzenduta dago programa. Apirilera arte, zazpi ikastetxetako 700 ikasle inguruk izango dute aukera Muxikebarrin, goizeko eskola-orduetan, bi antzerki-ikuskitan eta opera-entsegu batez gozatzeko. Ostiral honetan, otsailaren 28an, abiatuko da programa, proiektu pilotua dena, *Mari eta gailera fabrika* antzezlanarekin; eta *Don Giovanni* (martxoak 6) operarekin eta *Etixerik txikiena* (apirilak 3) antzezlanarekin jarraituko du.

Eidaberen *Mari eta gailera fabrika*, gailera fabrika batean girotutako lana da; berdintasuna eta parekidetasuna ditu ardatz, eta, aldi berean, belaunaldi berri bidea ireki dieten emakume langileak omentzen ditu. Ainhoa Artetxe, Nagore González eta Itxaso Paiak istorio honetako pertsonaiei bizitza ematen diete, Olatz Gorrotxategiren zuzendaritzapean eta Galder Perezen testuekin. Funtzioa amaitutakoan, forum labur bat egingo da.

Martxoaren 6an, *Don Giovanni* iritsiko da, Mozarten opera ezagunenetako bat, Muxikebarrin Ópera 2001 konpainiak antzeztuko duen lana. Oraingo honetan, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek ikuskitunaren entsegu batez gozatu ahal izango dute, abeslari eta instrumentista ugari biltzen dituen.

Apirilaren 3an, *Etixerik txikiena* antzezlanak ipiniko dio amaiera zikloari, Ema-

kumearen Interpretazio Onenaren saria (Eva Azpilikueta) jaso zuena FETEN antzerki-azokan. Yarlekuren lana da, eta haur errefuxiatuek beren etxeak utzi behar izatean, haien patua zein den jakin gabe, bizi duten ziurgabetasunaz hitz egiten du, baita lehen uneetako harreman pertsonalen garrantziaz ere.

Ikuskitun horiek guztiak publiko orokorrarentzat ere izango dira, egun eta leku beretan, arratsaldeko ordutegian: *Mari eta gailera fabrika* (18:00h.), *Don Giovanni* (19:00h.) eta *Etixerik txikiena* (18:00h.).



Aixerrota Institutuko ikasle batzuk STARTInnova saria jaso dute

Aixerrota Institutuko Lur Etxebarria Saitua, Nicole Maeve Delaney Ripoll, Maialen García Resines, Josu Montelio Vicario eta Ainhize Garai Calvo ikasleek STARTInnova Gazte Ekin-tzaileentzako VII. Lehiaketaren bigarren saria jaso dute, 16-17 urteko kategorian. Karmele Torralba tutore izan duen talde horrek plastikozko botilentzako edukiontzi adimenduna eta funtzio anitzekoa diseinatu du, txartel baten bidez erabiltzaileei birziklatzeagatik pizgarri ekonomikoa ordainduko liekeena. Ideia da edukiontzi hori jaietan, jaialdi eta ospakizunetan erabiltzea. Lehiaketa El Correo egunkariak antolatzen du, hainbat entitatearen laguntzarekin, horien artean Getxoko Udalaren mentorizazioarekin. Saritutako ikasleek iPad eta diploma bana jaso dituzte.

Las Negras del 45-ren kontzertua

Larunbat honetan, otsailak 29, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolak Las negras del 45 taldearen lehen kontzertua hartuko du Euskadin, estatuan ahots-jazza lantzen duen emakumez osaturiko hirukote urrietako bat. Kontzertua *En clave de mujer* zikloaren barruan dago, 19:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da (3€ Musika Eskolako ikasleentzat).

Tatiana Suarez eta Monica Matabuena bizkaitarrak, Pahola Crowley Karibeko abeslariarekin batera dira taldeko abeslariak eta Getxon Emmet Crowley (gitarra) eta Tomás Merlo (kontrabaxua) musikariek arituko dira. Hirurak musika eragin ezberdinen esparruan trebatu dira, eta musikarekiko eta, bereziki, jazzarekiko maitasuna ahalik eta gehien garatzeko asmoaz egin dute bidaia.


Harmoniak eta sonoritateak esploratzea du helburu hiru koteak, bere interpretazioei soinua zaindua, swing-a, energia eta kolorea emanaz, eta inprobisazioa bere interpretazioen berezko partetzat hartuz.

Ahots-teknika tailerra

En clave de mujer zikloaren barruan, Musika Eskolak ahots-teknikako tailer bat ere antolatu du, eta Miren de Miguel soprano, ahots-coach, aktore eta egileak emango du.

Tailerrak plaza mugatuak ditu, eta gaztelaniaz izango da martxoko igande guztietan (1, 8, 15, 22 eta 29an) Romo Kultur Etxean 10:30etik 13:30era, eta matrikularen prezioa 60 eurokoa da (45€ Musika Eskolako ikasleentzat).

Informazio gehiago eta izena emateko: aisasimediateka@getxo.eus



“Xixili. Hegatsa galdu nuenekoa”, L. Lekuonaren ipuina

Leire Lekuona idazle getxotarrak (1976) orain dela gutxi argitaratu du *Xixili. Hegatsa galdu nuenekoa*, helduentzako ipuina; bertan, *Xixili* Bermeoko lamiaren istorioa kontatzen du. Narrazioak pertsonaia mitologiko horren itsaspeko erresuman murgiltzen gaitu. Hatsa galduta eta gizaki bihurtuta, *Xixili* arrantzale gazte batekin maiteminduko da. “*Baina liburu honek*”, dio egileak, “*ez du historia klasiko baten amaiera*”.



Mario Montenegrok “El diccionario de tu nombre” aurkeztu du

Mario Montenegro (Irun, 1962) idazle, filologo, poeta eta ostalari algortarrak Algortako Kultura Etxean aurkeztu du *El diccionario de tu nombre*, kontakizun laburren bilduma “*urte askotan zehar bolbora, laztan eta memoria-erretiluekin idatzitako kontakizunak*”. Bere bosgarren lana da, eta bere aurreko lanaren zati bat jasotzen du; kritikaren arabera, prosa poetiko landua erakusten du, eta bere arima sentimental eta maitemindua deskubritzen digu.

Romoko, Areetako eta Andra Mariako inauteriak

